



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko apirilaren 11

48. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru-lege proposamenak:

—11-24/PRO-00018. Foru-lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko gaikuntzadun funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuetan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko maiatzaren 30eko 16/2022 Foru Legea aldatzen duena. Aurkeztutako zuzenketak (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—11-25/MOC-00058. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernu Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua premiatzen baita Nafarroako 47 natura-monumentuak babesteko jarduketa-plana taxutu eta aldi behin berriki dezan. Carlos Guzmán Pérez jaunak aurkeztu du (8. or.).

—11-25/MOC-00059. Mozioa, zeinaren bidez iberiar otsoa babesik gabe uzteko legezko neurri edo ekimen oro errefusatzen baitu Nafarroako Parlamentuak. Carlos Guzmán Pérez jaunak aurkeztu du (9. or.).

—11-25/MOC-00060. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita adingabeen egoitza-harrerarako sistema indartzeko bide-orri bat zehaztu dezan 2025eko uztaila baino lehen, inplikaturatutako eragile instituzionalen nahiz sistemako langileen kolektiboaren parte-hartzearekin. Javier Arza Porrás jaunak aurkeztu du (11. or.).

F SAILA:

Galderak:

—11-25/PES-00155. Galdera, etxebizitzaren jabe diren pertsona fisiko eta juridikoen eta etxebizitzaren alokairu-gatiko errentak jaso zituztenen kopuruari buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (12. or.).

—11-25/PES-00156. Galdera, Nafarroan bidaiderik gabeko adingabeak hartzeari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (13. or.).

—11-25/PES-00157. Galdera, ikus-entzunezko Ekintzailatza eta Berrikuntzako Unibertsitate Adituko Ikastaroan izena eman duten ikasleen jatorriari buruzkoa. Isabel Olave Ballarena andreak egin du (14. or.).

—11-25/PES-00158. Galdera, iberiar otsoa babesik gabe uzteari dagokionez Nafarroako Gobernuak daukan jarrerari buruzkoa. Félix Zapatero Soria jaunak egin du (14. or.).

- 11-25/PES-00159. Galdera, Akitania/Euskadi/Nafarroa Euroeskualdea Lurralde-lankidetzako Europako Taldearen estatutuei buruzkoa. Isabel Olave Ballarena andreak egin du (15. or.).
- 11-25/PES-00160. Galdera, jakiteko non kontsultatzen ahal den etxebizitza babestuaren egungo eskatzaile-kopuruaren adierazlea. Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak egin du (16. or.).
- 11-25/PES-00161. Galdera, Hedabide Digitalen eta Desinformazioaren aurkako Iberiar Behatokiarekiko hitzarmenari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (17. or.).
- 11-25/PES-00162. Galdera, Industrializazioaren eta Eraikuntzako Robotikaren Zentroaren europar finantzaketari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (18. or.).
- 11-25/PES-00163. Galdera, Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdearen Batzorde Betearazleak kanpo-auditoretzako organismo independente bat izendatzeari buruzkoa. Isabel Olave Ballarena andreak egin du (19. or.).
- 11-25/PES-00164. Galdera, Tracasa Instrumental SLren erakunde-egitura berriari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (20. or.).

B saila:
FORU-LEGE PROPOSAMENAK

11-24/PRO-00018. Foru-lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko gaikuntzadun funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuetan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko maiatzaren 30eko 16/2022 Foru Legea aldatzen duena

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 149. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezkeen Nafarroako Foru Komunitateko gaikuntzadun funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuetan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko maiatzaren 30eko 16/2022 Foru Legea aldatzen duen foru-lege proposamenari aurkezturiko zuzenketak. Foru-lege proposamen hori 2024ko abenduaren 13ko 144. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko apirilaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

1. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Artikulu bakarra kentzekoa, zeinaren ordez honako zuzenketa hauetan jasotzen diren Lehen eta Bigarren artikulua paratuko bailirateke.

Zioak: Aurkezten diren bi zuzenketen bitartez aldatua suertatzen denez artikulu bakarraren edukia, teknikoki egokiagoa da hori ezabatzea, eta ez aldatzea; izan ere, eduki berezia duten bi zuzenketa aurkezten dira, eta modua legoke bata bai baina bestea ez onesteko, 16/2022 Foru Legearen testuak horratik koherentziarik galdu gabe.

2. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Lehen artikulua.- 3. bis) artikulua berria gehitzen zaio maiatzaren 30eko 16/2022 Foru Legeari, Nafarroako Foru Komunitateko gaikuntzadun funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuetan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzkoari.

"3. bis) artikulua.

1.- Diruzko ordain hau emanen zaie foru lege honetako 1. eta 3. artikuluetan arautzen diren prozesuetako postu-jabetzeen ondorioz Nafarroako toki-entitateekiko harremana amaitzen zaien aldi baterako administrazio-kontratudun jarduneko langileei: hogeitun eguneko ordainsari finkoa, zerbitzuan emandako urte bakoitzeko; urtebete baino gutxiagoko aldiak hilabetekoa hainbanatuko dira, gehienez ere 12 hilabeteraino. Ordain horretarako eskubidea jaioko da norbera aldi baterako administrazio-kontratudun gisa zerbitzu ematen ari zeneko lanpostua egiazki uzten duen datatik, baldin eta lanpostu-uztetik hilabeteko epean ez badu prozesu horien ondorioz ezein lanposturen jabetzarik hartu.

2.- Aurreko apartatuan aitorturiko diruzko ordaina pagatzeko, funts berezi bat eratu eta zuzkituko da, Toki ogasunek Nafarroako Tributueta Parte Hartzeko Funtsari atxikitako diruzaintzagerakinaren kargura, hortik osoki ordaintze aldera

toki-entitateek horretarako eskaera egiten duten langile kaltetuei pagatu beharreko ordainak".

Zioak: 16/2022 Foru Legeko 7. artikuluko 5. apartatuak ezarri zuen funts berezi bat sortuko zela, Toki Ogasunek Nafarroako tribuuetan parte hartzeko Funtzari atxikitako diruzaintza-gerakinaren kargura, osoki pagatze aldera toki-entitateak ordaindu beharrean suerta litezkeen kopuruak, eratorriak direnean Foru Komunitateko gaikuntzadun funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuetako aldi baterako enplegua egonkortzeko hautaprosesuetatik, foru lege honek arautzen dituen horietatik.

Alabaina, diru-ordain horietatik kanpo geratzen ziren administrazio-kontratadun langileak, baldin, halakotzat jardunean egonik, Nafarroako toki-entitateekin daukaten lotura amaitu egiten baita lekualdatze-prozesuen eta oposizio-lehiaketazko txanda askeko prozesuen ondoriozko kargu-jabetezengatik; izan ere, prozesu horiek, 16/2022 foru legearen 1. eta 3. artikuluetan arautuak, ez dira hertsiki egonkortze-prozesuak izan.

Proposatzen da foru legean artikuluko berri bat erants dadila, balizko kalte-ordain hori posible izan dadin foru legearen 1. eta 3. artikuluetan arauturiko prozesuen ondorioz beren aldi baterako lanpostuko jarduna amaituta suertatzearen egoera horretan aurki litezkeen administrazio-araubideko kontratadun langile horientzat guztientzat, baldin eta, hilabete bateko epea igaro denean, jabetza hartu gabe badaude lekualdatze-prozesu horien edo txanda askekoen ondorioz.

3. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bat gehitzea proposatzen da:

Harik eta Konstituzio auzitegiak ebatzi arte Nafarroako Foru Komunitateko gaikuntzadun funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuetan aldi-baterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko maiatzaren 30eko 16/2022 Foru Legeko zenbait manuri buruz Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak aurkezturiko konstituzio-kontrakotasun arazoa, aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrenda bat egiten da, honako baldintza hauek guztiak betetzen dituzten izangaiak osaturikoa:

1.- Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren zuzendari nagusiaren abenduaren 1eko 679/2022 Ebazpenaren bitartez deituriko prozedurietako epaimahaiek kasuko izangaiaren aldeko izendapen- eta gaitze-proposamena egin izana.

2.- Foru-gaikuntzarik lortu ez izana, Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren zuzendari nagusiaren abenduaren 1eko 680/2022 Ebazpenaren bitartez deitutako prozeduren ondoriozkorik. Ebazpen horren bidez onesten da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak emandako gaikuntza lortzeko deialdia, eta Nafarroako toki-entitateetako idazkaritzako eta kontu-hartzailetzako postuetarako sarbidea ematea, oposizio-lehiaketaren sistemazko txanda askeko hautaprosesuen bitartez, bai eta aldi baterako enplegua oposizio-lehiaketa bidez egonkortzeko hautaprosesua ere.

Nafarroako toki-entitateetako idazkaritzako edo kontu-hartzailetzako postuetarako aldi baterako kontrataziorako izangai-zerrenda hori ordezkoa izanen da oposizio-lehiaketaren sistemazko txanda askeko deialdiaren ondoriozkoaren aldean, bai eta aldi baterako enplegua oposizio-lehiaketaz egonkortzeko prozesuaren ondoriozkoaren aldean ere, zeinak lehenago aipatu baitira.

Zerrendako izangaien hurrenkera izanen da izendapen-proposamenetan haiek betetzen duten posizioaren arabera.

Izangaiei deitzea eta, kasua bada, haiek kontratatzea, egiten dira abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuak ezarritako jarraikiz, zeinak onesten baitu Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren testu bategina, bai eta Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Kontseilariaren 5eko 187/2013 Foru Aginduari jarraikiz ere, zeinak onesten baititu hala eskatzen duten Nafarroako toki entitateen idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuak aldi baterako betetzeko izangaien zerrendak kudeatuko dituzten arauak. Halaber helduko zaio aplikatzekoa izan daitekeen gainerako araudiari.

Zioak: Nafarroako Foru Komunitateko gaikuntzadun funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuetan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko maiatzaren 30eko 16/2022 Foru Legearen 8. artikuluko 2. apartatua ezabatzearekin batera, zeinaren arabera modu bateratuan egiten bailirateke, administrazio-eraginkortasunari dagozkion arazoengatik, prozesu desberdinetako jabetza-hartzeak, maiatzaren 30eko 16/2022 Foru Legean txertatu beharreko xedapen gehigarri honen bidez lortu nahi da izendapen-proposamena eta gaikuntza duten izangaiak osaturiko aldi baterako kontrataziorako zerrenda bat edukitzea, behin-behinekoz samurtuko dituen toki-entitateen beharrianak, konstituzio-kontrakotasun arazoa ebazten den arte.

4. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Bigarren artikulua.- Lehen xedapen iragankor berria gehitzen zaio maiatzaren 30eko 16/2022 Foru Legeari, Nafarroako Foru Komunitateko gaikuntzadun funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuetan aldirakotasuna murrizteko pre-sako neurriei buruzkoari.-

1.- Harik eta Konstituzio Auzitegiak ebatzi artean Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salak aurkezturiko konstituzio-kontrakotasun arazoak, 58/2023, 461/2023 eta 9/2004 prozedura arruntetakoak, foru lege honen 6. artikulua 1. eta 2. apartatuei buruzkoak, eta Administrazioarekiko Auzien Sala horrek prozedura arrunt horietan epairik ematen ez duen bitartean, aldi baterako administrazio-araubideko kontrataziorako zerrenda bat sortuko da, horrela eskatzen duten Nafarroako toki-entitateetako idazkaritza eta kontu-hartzaitzako postuen egin-kizunak betetzeko.

2.- Zerrenda horretan honako hauek sartuko dira, adierazten den lehentasun-hurrenkeran:

a).- Harako pertsonak zeinek parte hartu baitzuten prozedura hartan, Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren zuzendari nagusiaren irailaren 15eko 515/2022 eta 516/2022 ebazpenen bitartez deituak izanik Nafarroako toki-entitateetakoak ziren idazkaritza eta kontu-hartzaitzako postu hutsak gaikuntzadun funtzionarioen artean merezimendu-lehiaketa bidez betetzekoan. Sarre-hurrenkeran izanen da eginiko probetako emaitzaren arabera, jarraiturik 57/2023 Ebazpenari, zeina aldatua izan baitzen martxoaren 14ko 102/2025 Ebazpenaren bidez, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salak emandako 5/2025 apelazioa betez jaulki zen martxoaren 14ko 102/2025 Ebazpenaren bitartez, bai eta martxoaren 20ko 58/2023 Ebazpenaren bidez ere.

b).- Harako pertsonak zeinek parte hartu eta prozedura gainditu baitzuten, postua lorturik edo lortu gabe, eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak emandako gaikuntzaren oposizioko lehen ariketa gainditu zutenak. Nafarroako toki-entitateetako idazkaritza-postuetarako eta kontu-hartzaitzako postuetarako sarbidea, oposizio-lehiaketaren sistemazko txanda askeko hautaprosesuaren bitartez eta aldi baterako enpleguaren egonkortzerako oposizio-lehiaketa bitartezko hautaprosesuaren bitartez, zein-

naren deialdia egin baitzen Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren zuzendari nagusiaren abenduaren 1eko 680/2022 Ebazpenaren bitartez, zeinak onetsi baitzuen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak emandako gaikuntza lortzeko deialdia; eta Nafarroako toki-entitateetako idazkaritza eta kontu-hartzaitzako postuetarako sarbidea, merezimendu-lehiaketaren sistema bereziaren bidez, zeinetako emaitzak 2024ko urriaren 3an argitaratu baitzituen kasuko epaimahaiak idazkarien kasuan, eta 2024ko maiatzaren 6an, kontu-hartzaitleen kasuan.

c).- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak emandako gaikuntza lortzeko deialdian parte hartu zuten pertsonak, eta Nafarroako toki-entitateetako idazkaritza-postuetarako sarbidea, merezimendu-lehiaketaren ohiz kanpoko sistemaren bitartez, zeina onetsi baitzen Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren zuzendari nagusiaren abenduaren 1eko 679/2022 Ebazpenaren bitartez, epaimahaiak 2023ko ekainaren 28an onetsitako merezimendu-lehiaketaren behin betiko emaitzaren arabera, baldin eta frogatu bazen gutxienez ere urtebetez eman zirela idazkari gisa zerbitzuak Nafarroako toki-entitateetan.

3.- Foru lege honen 8.3 artikuluan xedatuari jarraikiz, oposizio-lehiaketaren sistemazko txanda askeko deialditik eratorritako izangai-zerrendak lehentasuna izanen du aldi baterako enplegua oposizio-lehiaketaz egonkortzeko prozesutik eratorriaren aldean; eta azken horrek, bere aldetik, lehentasuna izanen du iraupen luzeko aldi baterako enplegua merezimendu-lehiaketa bidez egonkortzeko ohiz kanpoko hautaprosesutik eratortzen denaren aldean. Horien guztien gainetik, lehentasuna izanen dute lekualdatze-lehiaketan parte hartutakoak direnek.

4.- Lurralde Kohesiorako kontseilariari ahalmena ematen zaio salbuespen gisa foru agindu bidez onets ditzan arauak, idazkaritza eta kontu-hartzaitzako postuak aldi baterako betetzeari begira aurreko apartatuetan arautzen den prozesuko izangai-zerrendak kudeatzekoak.

5.- Aldi baterako kontrataziorako zerrenda eta horrekin baterako izangai-zerrendak, xedapen honen babesean eratuak, indarrean egonen dira harik eta, foru lege honen 8. artikulua 2. apartatuak aurreikusten duenari jarraikiz, foru lege honen 1. eta 2. artikuluetan arauturiko prozesu guztietako postuen jabetza hartzeari ekiten zaion datara arte".

Zioak: Zuzenketa honen edukiaren bidez, asmoa da 16/2022 Foru Legearen aurkako konstituzio-kontrakotasun arazoak aurkeztearen ondoriozko egoera eraentzea. Horretarako, eta Konstituzio Auzitegiak ebatzi artean Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salak aurkezturiko konstituzio-kontrakotasun arazoak, 58/2023, 461/2023 eta 9/2004 prozedura arruntetakoak, 16/2022 foru legearen 6. artikulua-ren 1. eta 2. apartatuei buruzkoak, eta Administrazioarekiko Auzien Sala horrek kasuko prozeduretan epairik ematen ez duen bitartean, proposatzen da aldi baterako administrazio-araubideko kontrataziorako zerrenda bat sortzea, horrela eskatzen duten Nafarroako toki-entitateetako idazkaritza eta kontu-hartzaitzako postuen eginkizunak betetzeko. Proposamen honek barne hartzen ditu 16/2022 Foru Legearen ondoriozko prozesuek ukituriko langile guztiak, halako moldez non ezekin toki-entitate ez baita geratuko, ezta aldi baterako ere, izan litzakeen idazkaritzako eta kontu-hartzaitzako beharrezanean erantzun ezinean, harik eta Konstituzio Auzitegiak kasuko prozedurak ebazten dituen arte.

5. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Foru legearen hitzaurrea aldatzekoa. Hona testu berria:

Maiatzaren 30eko 16/2022 Foru Legeak, Nafarroako Foru Komunitateko gaikuntzadun funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuetan aldi-baterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzkoak, 8.3 artikuluan adierazi zuen ezen, eraginkortasun administratiboarekin lotutako arrazoiengatik, eta bat etorriarik Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 252. artikuluan ezarritakoarekin, izendatuak izan direneko lanpostuez egun berean jabetuko direla 1. artikuluan aurreikusten diren merezimendu-lehiaketa berezietan lanpostua lortzen dutenak eta 4. artikulutik 7.era bitartekoetan aurreikusitako hautaprosesuen ondoriozko foru gaikuntza lortzen dutenak.

Maiatzaren 30eko 16/2022 Foru Lege horren onespina eta gero jaulki ziren azaroaren 15eko 515/2022 eta abenduaren 1eko 679/2022 eta 680/2022 ebazpenak, Toki Administrazioaren eta

Despopulazioaren zuzendari nagusiarenak, zeinen bitartez onetsi baitziren foru legeak aurreikusten dituen lekualdatze-, merezimendu- eta oposizio-lehiaketa deialdiak. Deialdi horietan jasotzen zen lanpostu-jabetze guztien arteko lotura, aipatu 8.3 artikuluan adierazitako moduan. Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak, 58/2023, 461/2023 eta 9/2004 prozedura arruntetan, erabaki zuen, 2024ko irailaren 10eko, urriaren 16ko eta azaroaren 19ko Autoen bitartez, 16/2022 Foru Legeko 6. artikulua-ren 1. eta 2. apartatuei buruzko konstituzio-kontrakotasuneko arazoak planteatzea.

Konstituzio Auzitegiaren Osoko Bilkurak, 2024ko abenduaren 3ko eta 17ko probidentzien bidez, erabaki zuen izapidetzeko onartzea konstituzio-kontrakotasun-arazo horiek, 8614/2024, 8421/2024, 8974/2024 eta 9801/2024 zenbakidunak, eta, Konstituzio Auzitegiari buruzko abenduaren 3ko 2/1979 Lege Organikoaren 35. artikuluari jarraikiz, ebatzi zuen administrazioarekiko auzi-prozesuak etenda egotea harik eta auzitegi horrek behin betikoz ebatzi arte.

Konstituzio Auzitegiak aurkeztu diren konstituzio-kontrakotasun arazoak ebazten dituen bitartean, bai eta, gero, Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak prozedura arrunt horietan egoki den ebazpena jaulki bitartean, kontuan harturik zerenolako den egoera (hautaprosesu desberdinetatik eratorritako lanpostu guztien jabetza-hartzeak elkarloturik egoteagatik eta toki-entitateek langile horiek direla-eta dituzten kontratazio-premiengatik), beharrezkoa gertatzen da 16/2022 Foru Legean xedapen iragankor bat txerta dadin onestea, administrazio-araubideko aldi baterako kontratazio-zerrenda bat sortzekoa, horretarako eskaera egiten duten Nafarroako toki-entitateetako idazkaritza-postuen eta kontu-hartzaitzako postuen eginkizunak norbaitek bete ditzan.

16/2022 Foru Legeko 7. artikuluko 5. apartatuak ezarri zuen funts berezi bat sortuko zela, Toki Ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko Funtzari atxikitako diruzaintza-gerakinaren kargura, osoki pagatze aldera toki-entitateak ordaindu beharrean suerta litezkeen kopuruak, eratorriak direnean Foru Komunitateko gaikuntzadun funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuetako aldi baterako enplegua egonkortzeko hautaprosesuetatik, foru lege honek arautzen dituen horietatik.

Alabaina, diru-ordain horietatik kanpo geratzen ziren administrazio-kontratudun langileak, baldin, halakotzat jardunean egonik, Nafarroako toki-entitateekin daukaten lotura amaitu egiten baita lekualdatze-prozesuen eta oposizio-lehiaketazko txanda askeko prozesuen ondoriozko kargu-jabetzeengatik; izan ere, prozesu horiek, 16/2022 Foru Legearen 1. eta 3. artikuluetan arautuak, ez dira hertsiki egonkortze-prozesuak izan.

Foru legean artikulua berri bat eransten da, balizko kalte-ordain hori posible izan dadin foru

legearen 1. eta 3. artikuluetan arauturiko prozesuen ondorioz beren aldi baterako lanpostuko jarduna amaituta suertatzearen egoera horretan aurki litezkeen administrazio-araubideko kontratudun langile horientzat guztientzat, baldin eta, hila-bete bateko epea igaro denean, jabetza hartu gabe badaude lekualdatze-prozesu horien edo txanda askekoen ondorioz".

Zioak: Foru legearen hitzaurrearen edukia aldatzea, hura proposaturiko zuzenketetara egokitzeko.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-25/MOC-00058. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua premiatzen baita Nafarroako 47 natura-monumentuak babesteko jarduketa-plana taxutu eta aldian behin berrikus dezan

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua premiatzen baita Nafarroako 47 natura-monumentuak babesteko jarduketa-plana taxutu eta aldian behin berrikus dezan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko apirilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérez parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Mozio hau betetzeari buruzko jarraipena Nafarroako Parlamentuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean egin dadila eskatzen dugu.

Zioen azalpena

Duela zenbait hamarkadaz gerotik, gure erki-degoak katalogo bat du, Nafarroako 47 natura-monumentuak identifikatzen dituena.

Natura-monumentuak paisaia-, geologia- eta/edo historia-balio bereziko elementuak dira –ehun urtetik gorako zuhaitz batetik baso edo koba bateraino–, eta haien kontserbazioak babes berezia eskatzen du. Nafarroan 47 natura-monumentu daude, gure lurraldeko espezie eta basosistema nagusiak irudikatzen dituztenak.

Nafarroako Gobernuaren webgunean mapa interaktibo bat dago, zeinetan identifikatzen ahal baitira Nafarroako 47 natura-monumentuak. Mapa horren bitartez, gainera, fitxa bat deskargatzen ahal da, horietariko bakoitzari buruzko informazio zehatza dakarrena.

Ekidinezina den eguraldi txarra dela-eta, natura-monumentu horietako batzuek kalteak jasan dituzte azken urteotan. Kasurik ezagunena, beharbada, Fontellasko "El Bocal" haritzarena da, adakeran kalte handiak pairatu baitzituen 2023ko ekaineko eta 2024ko uztaileko ekaitzen ondorioz.

Eguraldi txarrari ezin zaio iskin egin, baina eguraldi txarrak natura-monumentuetan eragindako kalteak prebenitu egin daitezke edo gutxienez ere minimizatu egin daitezke, prebentziozko babes-neurriak hartzen baldin badira. Adibidez, 2007an tximistorratz bat paratu zen Iruñean Diputazioaren Jauregiko sekuoian, tximistaren inpaktuak berriz ere kalteak sortzea ekiditeko (adibidez, 1933an, tximista batek sekuoia horren adaburua larriki hondatu zuen).

Ekologia-, paisaia- eta ingurumen-balio handia izanagatik, Nafarroako natura-monumentu horien gaineko ezagutza harrigarriro txikia dauka nafar askok; izan ere, nafar askok ez dakite natura-monumentu horiek daudenik ere, ezta horiek identifikatzeko katalogo bat dagoenik ere.

Natura-monumentu horien prebentziozko zaintza, bai eta monumentu horiek jasotzen dituen

katalogoaren berri nafarrei ematea ere, Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak nahitaez egin beharreko lana da.

Erabaki-proposamena

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua premiatzen du Nafarroako 47 natura-monumentuak babesteko jarduketa-plana taxutu eta aldian behin berrikus dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua premiatzen du jarduketa-plan bat taxutu dezan, Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuarekin lankidetzan, Nafarroako 47 natura-monumentuak identifikatzen dituen katalogoaren berri emateko.

Iruñean, 2025eko martxoaren 28an

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-25/MOC-00059. Mozioa, zeinaren bidez iberiar otsoa babesik gabe uzteko legezko neurri edo ekimen oro errefusatzeko baitu Nafarroako Parlamentuak

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez beriar otsoa babesik gabe uzteko legezko neurri edo ekimen oro errefusatzeko baitu Nafarroako Parlamentuak.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko apirilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérez parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Mozio hau betetzeari buruzko jarraipena Nafarroako Parlamentuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean egin dadila eskatzen dugu.

Zioen azalpena

2025eko martxoaren 20an– osteguna–, Diputatuen Kongresuak onetsi zuen Babes Araubide Bereziko Espezieen Zerrendatik kanpo uztea iberiar otsoa Duero ibaiaren iparraldean. Erabaki eztabaidagarri hori akats historikoa da, ingurumenaren arloan atzera egitea eta arazo konplexu bati erantzun sinplista bat ematea dakarrena.

Babesa kendu da, hain zuzen, azken aste eta hilabeteotan jakin dugunean gure erkidegoan otso bakarti gutxi batzuk agertu direla, beharbada lurralde mugakideetatik heldu direnak. Gogoan izan behar dugu otsoa Nafarroan espezie iraungi gisa ageri dela Espezie Mehatxatuen 1995eko Katalogoan, eta mende bat baino gehiago daramagula otso-talderik gurean ezarrita egon gabe. Ale bakartien presentzia puntual horri ez zaio dagokion garrantzia baino handiagorik eman behar, eta ez du inondik ere eragin edo justifikatu behar espezie horri babesa kentzeko neurriak hartzea Nafarroan.

Otsoa babesik gabe uztea Natura-ondareari buruzko Legean eta ekologia-zientzian ezarritakoaren aurka doa. 2022an onetsi zen Otsoaren Kontserbazioari eta Kudeaketari buruzko Estrategiak erakusten du prebentzio-neurriak (itxiturak, atarixakurrak eta abere-taldekatzeak) eraginkorrak direla ganaduak pairatutako kalteak murrizteko. Alemaniak eta Frantziak otsoarekin batera bizitzeko lortu dute, ehizara jo behar izan gabe. "Ehiza-erazketa" baimentzea ez da kudeatzea, baizik eta biodibertsitatea kondenatzea.

Otsoa, espezie gisa, funtsezko elementua da oreka ekologikorako. Otsoak belarjale handien

populazioak erregulatzen ditu, eta ekosistemaren degradazioa prebenitzen du. Madrilgo Unibertsitate Autonomoaren azterlanen arabera, honela banatzen da otsoaren dieta: % 85, animalia basatiak, eta soilik % 18 ganadua. Otsoak funtsezko zeregina dauka biodibertsitateari eta nekazaritzako ekosistemen osasunari begira.

Argi dago abeltzaintza estentsiboak erronka handiak dauzkala gaur egun, baina konponbidea ez da otsoa desagerraraztea, baizik eta prebentzio eta konpentsazio neurriak indartzea. Trantsizio Ekologikoaren Ministerioak urtero 20 milioi euro bideratzen ditu jada laguntzetara, zeinak handitu eta eraginkortasunez kudeatu behar baitira. Autonomia-erkidegoetako administrazioek, bai eta Nafarroako Gobernuak ere, abeltzaintza-sektoreari laguntzeko neurriak indartu behar dituzte, ingurumenaren aldetik jasangarria den koexistentzia bermatzeko. Otsoa akabatzeak ez du arazoa konponduko; bai, ordea, ebidentzian eta gizarte-bitartekaritzan oinarritutako politika batek.

Krisialdi klimatiko eta biodibertsitate-krisialdi betean, otsoa babesik gabe uztea pauso bat atzera

ematea da, natura-leheneratzearen alde Europak hartutako konpromisoen aurka doana. Basa-fauna ez da oztopo bat, ezpada zaindu beharreko ondarea. Iberiar otsoak, zeina 70eko hamarkadan galzorian egon baitzen, gure historiaren eta gure kulturaren parte izaten jarraitzea merezi du.

Erabaki-proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten du iberiar otsoa babesik gabe uzteko lege-neurri edo -ekimen oro.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako eta Estatuko administrazio publiko guztiak premiatzen ditu Nafarroako eta Espainiako abeltzaintza-sektorearen eskutik lan egiten jarrai dezaten, iberiar otsoarekiko koexistentziaren premisapean, ingurumen aldetik jasangarria, ukituta egon litekeen abeltzaintza-sektoreari lagun egiteko neurriak eta jarduketak indartuta.

Iruñean, 2025eko apirilaren 1ean

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-25/MOC-00060. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita adingabeen egoitza-harrerarako sistema indartzeko bide-orri bat zehaztu dezan 2025eko uztaila baino lehen, inplikatura dauden eragile instituzionalen nahiz sistemako langileen kolektiboaren parte-hartzearekin

JAVIER ARZA PORRAS JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Arza Porrás jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita adingabeen egoitza-harrerarako sistema indartzeko bide-orri bat zehaztu dezan 2025eko uztaila baino lehen, inplikatura dauden eragile instituzionalen nahiz sistemako langileen kolektiboaren parte-hartzearekin.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko apirilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porrás-ek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena

Adingabeen egoitza-harrerarako sistemak % 21 ume eta nerabe gehiago hartu edo babestu zituen 2024an zehar. Aurreikuspena da aurten ere handitzea kopuru hori, batez ere Kanariar Uhartetatik heldu diren etorkin adingabeak hartuz gero.

Sistema oso tentsionaturik dago, ez bakarrik artatutako populazio hori handitu delako, baizik

eta sistemak lehendik ere bazeuzkalako ahulgune handiak. Egindako ebaluazioek hainbat problematika uzten dituzte agerian: langileen kolektiboak ez dauka behar besteko prestakuntza jarraiturik, handia da langileen txandakatzea, ez dago zentro guztientzako hezkuntza-proiektu sendo eta komun bat, eta hobetu egin behar da bizitza independenterako prestakuntza-aldia.

Profesionalek orobat aipatzen dute asko aldatu dela artatutako populazioaren profila, handiagoa baita adikzio-arazoak edo osasun mentalekoak daukatena, eta gero eta gatazka gehiago ematen dira adin gero eta txikiagokoen artean, Eta horrek txandakatze gehiago, baja gehiago, eraso-parte gehiago.... egotea dakar.

Nafarroako Gobernua zenbait neurri hartzen ari da, hala nola lanpostu berriak sortzea edo Familiari, Haurrei eta Nerabeei Laguntzeko Estrategia Integrala taxutzea. Halere, estrategia hori parte hartzeko prozesuan egonen denez 2025eko abenduaren 31 arte, ez da 2026ra bitarte onetsiko.

Kezkagarria iruditzen zaigu abian jartzen ari diren neurriak aski ez izatea, artatutako populazioaren bolumenean eta premietan izandako aldaketen abiadura eta intentsitate berarekin ez aplikatzea.

Erabaki-proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du:

- Adingabeen egoitza-harrerarako sistema indartzeko bide-orri bat zehaztu dezan 2025eko uztaila baino lehen, inplikatura dauden eragile instituzionalek eta, halaber, sistemako langileen kolektiboak parte hartuta.

Iruñean, 2025eko apirilaren 2an.

Foru parlamentaria: Javier Arza Porrás

F saila:
GALDERAK

11-25/PES-00155. Galdera, etxebizitzen jabe diren pertsona fisiko eta juridikoen eta etxebizitzen alokairuagatiko errentak jaso zituztenen kopuruari buruzkoa

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, etxebizitzen jabe diren pertsona fisiko eta juridikoen eta etxebizitzen alokairuagatiko errentak jaso zituztenen kopuruari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko apirilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendiak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernuari Ekonomia eta Ogasun Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren, Sozietateen gaineko zergaren, Ondarearen gaineko zergaren aitortzen edo Nafarroako hiri-ondasuneko katastroko datuen arabera Ekonomia eta Ogasun Departamentuak dauzkan datuekin bat, honako hau jakin nahi dugu:

– Zenbat pertsona fisiko dira, osorik edo zati batean, etxebizitzen jabe gaur egun Nafarroan?

– Zenbat pertsona juridiko dira, osorik edo zati batean, etxebizitzen jabe gaur egun Nafarroan?

– 2024an, zenbat pertsona fisikok aitortu zituzten etxebizitzen alokairu-errentetatik heldu diren diru-sarrerak?

– 2023an, zenbat pertsona fisikok aitortu zituzten etxebizitzen alokairu-errentetatik heldu diren diru-sarrerak?

– 2022an, zenbat pertsona fisikok aitortu zituzten etxebizitzen alokairu-errentetatik heldu diren diru-sarrerak?

– 2021ean, zenbat pertsona fisikok aitortu zituzten etxebizitzen alokairu-errentetatik heldu diren diru-sarrerak?

– 2020an, zenbat pertsona fisikok aitortu zituzten etxebizitzen alokairu-errentetatik heldu diren diru-sarrerak?

– 2025ean, zenbat pertsona juridikok aitortu zituzten etxebizitzen alokairu-errentetatik heldu diren diru-sarrerak?

– 2024an, zenbat pertsona juridikok aitortu zituzten etxebizitzen alokairu-errentetatik heldu diren diru-sarrerak?

– 2023an, zenbat pertsona juridikok aitortu zituzten etxebizitzen alokairu-errentetatik heldu diren diru-sarrerak?

– 2022an, zenbat pertsona juridikok aitortu zituzten etxebizitzen alokairu-errentetatik heldu diren diru-sarrerak?

– 2021ean, zenbat pertsona juridikok aitortu zituzten etxebizitzen alokairu-errentetatik heldu diren diru-sarrerak?

– 2020an, zenbat pertsona juridikok aitortu zituzten etxebizitzen alokairu-errentetatik heldu diren diru-sarrerak?

Iruñean, 2025eko martxoaren 29an

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

11-25/PES-00156. Galdera, Nafarroan bidaidetik gabeko adingabeak hartzeari buruzkoa

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, Nafarroan bidaidetik gabeko adingabeak hartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko apirilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxi-

kita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Nafarroak hartuko dituen bidaidetik gabeko adingabeei buruzko galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaiola:

– Bidaidetik gabeko zenbat adingabe hartuko ditu zehazki Nafarroak?

– Zer baliabide ekonomiko eta giza baliabide eskainiko zaie?

– Zer datu igorri dira ministeriora akordioa egiteko?

– Adingabe horiek non aurreikusten da hartzea?

– Zein da adingabe bakoitzaren kostua eta nola finantzatuko da kostu hori?

Iruñean, 2025eko martxoaren 31n

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

11-25/PES-00157. Galdera, Ikus-entzunezko Ekintzailletza eta Berrikuntzako Unibertsitate Adituko Ikastaroan izena eman duten ikasleen jatorriari buruzkoa

ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak egindako galdera, Ikus-entzunezko Ekintzailletza eta Berrikuntzako Unibertsitate Adituko Ikastaroan izena eman duten ikasleen jatorriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko apirilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Isabel Olave Ballarena andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, Mondragon Unibertsitatearen Ikus-entzunezko Ekintzailletza eta Berrikuntzako Unibertsitate Adituko Ikastaroko ikasleei buruzko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zer autonomia-erkidegotatik heldu da ikasle horietako bakoitza? Xehakatu erantzuna, ikastaro horren edizio bakoitzaren arabera.

Iruñean, 2025eko martxoaren 31n

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

11-25/PES-00158. Galdera, iberiar otsoa babesik gabe uzteari dagokionez Nafarroako Gobernuak daukan jarrerari buruzkoa

FÉLIX ZAPATERO SORIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Félix Zapatero Soria jaunak egindako galdera, Iberiar otsoa babesik gabe uzteari dagokionez Nafarroako Gobernuak daukan jarrerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko apirilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Félix Zapatero Soria jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2025eko martxoaren 20an, Diputatuen Kongresuak onetsi zuen Babes Araubide Bereziko Espezieen Zerrendatik kanpo uztea iberiar otsoa Duero ibaiaren iparraldean; beraz, baimenduta dago berriro ere otsoa inguru horietan ehizatzea. Erabaki horrek kezka sortu du Nafarroako gizarte-ko hainbat sektoretan, bereziki biodibertsitatearen kontserbazioarekin eta abeltzaintza estentsiboarekin konprometitutakoen artean.

Funtsezkoa da jakitea Nafarroako Gobernuak zer jarrera duen eta zer neurri hartuko dituen iberiar otsoaren babesgabetasun horri buruz, bai eta gure Foru Komunitatean espeziearen eta abeltzaintza-jardueren arteko bizikidetzaren jasangarria bermatzeko zer ekintza egingen den ere.

Hori dela-eta, Nafarroako Gobernuari honako hau galdetzen diogu:

– Nafarroako Gobernuak zer jarrera du Diputatu Kongresuak onetsi duenari jarraikiz iberiar otsoa Duero ibaiaren iparraldean babesik gabe

uzteari buruz eta Nafarroako Gobernuak zer neurri edo ekimen abiaraziko du?

– Zer neurri ezarriko da Nafarroako lurraldean iberiar otsoaren kontserbazioa bermatzeko?

– Nola lagunduko diozue abeltzaintza-sektoreari espeziearekiko balizko interakzioetan?

– Nola sustatuko duzue basa faunaren eta giza jardueren arteko bizikidetzaren jasangarria?

Iruñean, 2025eko apirilaren 1ean

Foru parlamentaria: Félix Zapatero Soria

11-25/PES-00159. Galdera, Akitania/Euskadi/Nafarroa Euroeskualdea Lurralde-lankidetzako Europako Taldearen estatutuei buruzkoa

ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak egindako galdera, Akitania/Euskadi/Nafarroa Euroeskualdea Lurralde-lankidetzako Europako Taldearen estatutuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko apirilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Isabel Olave Ballarena andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babese-

an, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2017ko urtarrilaren 30ean sinatu zen "Akitania/Euskadi/Nafarroa Euroeskualdea Lurralde-lankidetzako Europako Taldearen Estatutuak" izeneko dokumentuan, 22. artikuluan, honako hau jasotzen da hitzez hitz:

"Batzorde Betearazleak taxutuko du barne-araudia, eta ondoren Biltzarrak onetsiko du. Barne-araudiak Lurralde-lankidetzako Europako Taldearen funtzionamendu-baldintzak ezarriko ditu, ez baitira estatutuaren aurreikusten".

– Batzorde Betearazleak taxutu al du barne-araudi hori?

– Batzarrak noiz onetsi du Erregelamendua?

– Onetsi baldin bada, zergatik ez digute kopia bat eman nahi?

– Erregelamendua onetsi ez baldin bada, estatutua zergatik bete ez den jakin nahi dugu.

Iruñean, 2025eko martxoaren 29an

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

11-25/PES-00160. Galdera, jakiteko non kontsultatzen ahal den etxebizitza babestuaren egungo eskatzaile-kopuruaren adierazlea

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egindako galdera, jakiteko non kontsultatzen ahal den etxebizitza babestuaren egungo eskatzaile-kopuruaren adierazlea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko apirilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako hau dio:

Errealitate Sozialaren Behatokia kendu eta Análisi eta Prospekzio Bulegoarekin integratu ondoren, Eskubide Sozialetako Departamentuaren eremuko zenbait adierazle kontsultatzeko moduan dauden arren, ezin da kontsultatu etxebizitza babestuaren eskatzaile-kopuruaren adierazlea. Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dugu:

Non kontsulta daitezke etxebizitza babestuaren eskatzaile-kopuruaren adierazlea eta adierazle hori garatzen duten datuak? (sexua, adina, etxebizitza-araubide mota eta abar)

Iruñean, 2025eko apirilaren 2an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

11-25/PES-00161. Galdera, Hedabide Digitalen eta Desinformazioaren aurkako Iberiar Behatokiarekiko hitzarmenari buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Hedabide Digitalen eta Desinformazioaren aurkako Iberiar Behatokiarekiko hitzarmenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko apirilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Joan den martxoaren 27an, Parlamentuaren Osoko Bilkuran, lehendakariak berriro adierazi zuen hitzarmen bat sinatu nahi duela Hedabide Digitalen eta Desinformazioaren aurkako Iberiar Behatokiarekin (Iberifier). Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dut:

– Zenbat bilera egin dira gai hori dela-eta Behatokiak Nafarroan dituen koordinatzaileekin, zein egunetan eta norekin?

– Hitzarmenean zer ekintza jasoko dira?

– Noiz aurreikusten duzue sinatuko dela?

– Zer aurrekontu izanen duela aurreikusten da eta Nafarroako Aurrekontu Orokorren zer lerroren kontura eginen da?

Iruñean, 2025eko apirilaren 2an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-25/PES-00162. Galdera, Industrializazioaren eta Eraikuntzako Robotikaren Zentroaren europar finantzaketari buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Industrializazioaren eta Eraikuntzako Robotikaren Zentroaren europar finantzaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko apirilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

2024ko azaroaren 21ean, Eraikin Publikoak Birgaitzea Sustatzeko Programaren Koordinazio Unitateak Nafarroako Gobernuaren lehenagoko mezu bati erantzun zion (José Antonio Marcén jauna). Haren bidez, jakin nahi zuten Industrializazioaren eta Eraikuntzako Robotikaren Zentrorako europar finantzaketa mantentzeko aukerarik ba ote zegoen Nafarroak igorritako kronograma berriarekin. Halaber, informazioa izan bezain laster berehala jakinaraziko ziotela adierazi zitzaion.

– Zein da igorri zen informazioaren edukia?

– Zein bide baliatu zen horretarako?

– Noiz?

Iruñean, 2025eko apirilaren 2an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-25/PES-00163. Galdera, Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdearen Batzorde Betearazleak kanpo-auditoretzako organismo independente bat izendatzeari buruzkoa

ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak egindako galdera, Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdearen Batzorde Betearazleak kanpo-auditoretzako organismo independente bat izendatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko apirilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Isabel Olave Ballarena andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

– Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdearen Batzorde Betearazleak kanpo-auditoretzako organismo independente bat izendatu al du bere Estatutuen 12. artikuluan zehaztutako kontrolaren osagarri gisa?

– Hala balitz, zer erakunde izendatu du?

– Hala balitz, zer egiteko agindu dio?

Iruñean, 2025eko apirilaren 2an

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

11-25/PES-00164. Galdera, Tracasa Instrumental SLren erakunde-egitura berriari buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, Tracasa Instrumental SLren erakunde-egitura berriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko apirilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Tracasa Instrumental enpresa publikoaren antolaketa-egitura berriari eta hura osatzen duten pertsonen izenen zerrendari dagokienez (parlamentari honi 11-25/PEI-00342 informazio-eskaerari erantzunez eman zaio zerrenda hori), honako hau jakin nahi dut:

1. Zer aldaketa izan dira aurreko antolaketa-egiturarekin alderatuta?

2. Departamentu-arduradunen kopurua handitu al da?

3. Hala baldin bada, zerk justifikatzen du hori? Zer igoera dakar horrek langileen gastuan?

Iruñean, 2025eko apirilaren 3an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray